



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

ZIGOITIAKO EMAKUMEEN EGOERA SOZIOPOLTIKOARI BURUZKO IKERKETA

Gorbeialdeko Kuadrillako berdintasun
Zerbitzuak prestatutako ikerketa, Murgibe
berdintasun Aholkularitzaren laguntzaz



INDICE

1.	Helburua	3.
2.	Metodologia	4.
3.	Zergatik emakumeen egoera soziopolitiko? .	7.
4.	Zer gertatzen da Zigoitian?	10.
5.	Zer egin dezakegu? Ibilbide-orria.. .. .	20.
6.	Zigoitiako errealitatean aplikagarriak diren Jardute Onak ..	22.

1.

Helburua

Helburu nagusia Zigoitiako emakumeen egoera soziopolitikoari buruzko lkerketa bat egitea da. Helburu orokor hau hurrengo helburu zehatzetan zehazten da:

- Zigoitiako udalerrian dauden elkarte motak, administrazio-batzarrak, auzoko batzarrak, eta bere osaera sexuaren arabera bereizita aztertu (zuzendaritza batzordeak, bazkidetutako pertsonak).
- 2013 urtez geroztik emakume eta gizonezkoen presentziari buruzko eboluzioaren azterketa kuantitatibo bat egin.
- Erakunde hauetan dagoen lidergo egoerara hurbilketa bat egin genero- ikuspegi batetik abiatuz eta hiritarren partaidetza sustatuz.
- Bai batzuei eta bai besteei bizitza sozial eta politikoan parte hartzera motibatzen dieten arrazoiak ezagutu.
- Erantzukizun postuetara sartzeko garaian emakumeek pairatzen dituzten eragozpenak antzeman.
- Denbora erabiltzeko moduak eta estiloak ezagutu: ordaindutako lana, etxeko lanak, mendekotasuna duten pertsonen zaintza, kirol-praktikak, etab.
- Erakunde motaren arabera baliabide publiko eta pribatuen erabilera aztertzea (egiturak, bertakoak, aurrekontuak, ikusgaitasuna eta ikuskapena,..).
- Erakundeen barruan lan dinamikak nola garatzen diren aztertu (ordutegiak, bileren maiztasuna, jarduerak, etab.)

2.

Metodologia

Honako ikerketa hau teknika kuantitatiboetan eta kualitatiboetan oinarritu da. Ikuspuntu kuantitatiboari dagokionez bizitza sozial, udal-bizitza eta laneko bizitzaren partaidetza eremuan aldagarri ezberdinak aztertu dira eta, informazio hau emakumeen bizitza politikoaren inguruko estatistiken analisiekin osatu da. Ikerketa-prozesu hau gidatu duten hasierako hipotesiak hurrengo hauek izan dira:

- Emakumeen partaidetza eskasa dago, batez ere zaintzaren rolaekin erlaziorik ez duten alor haietan (politikoa, ekonomikoa).
- Emakumeek udal ekintzetan parte hartzen dute, ostera herritarren partaidetza-organoen lanpostu erabakigarrietan ez dute ordezkariak.
- Emakume eta gizonen esleitu zaizkien rolak erabakigarriak bihurtzen dira partaidetza zehazteko garaian.
- Emakumeen jardura soziopolitikoei eskainitako denbora-tarteak txikiagoak dira gizonen eskainitakoak baino.
- Mendekotasuna duten pertsonen zaintza emakumeentzat eragozpen batean bihurtzen da jardura ezberdinetan parte hartzeko garaian.
- Laneko dinamikak gako bihurtzen dira emakumeen partaidetza eskasa dela azaltzeko.

Elkarrizketa bat gauzatu da Berdintasun, Ongizate sozial eta Gazteria, eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Emakume Zinegotziekin eta horrelako alderdiei buruz hausnartu da:

- Emakume eta gizonen aldeak partaidetzan.
- Elkarteetan, Batzar Administrazioen eta antzekoen balorazioa bere eraginaren arabera.
- Partaidetzan antzemandako oztopo nagusiak.

- Etorkizuneko erronkak.

Bigarrenik, eztabaida talde bat sortu da honako alderdiak jasotzeko asmoz:

- Zigoitiako emakumeen partaidetzari buruzko etorkizuna eta erronka.
- Sexuaren arabera antzemandako ezberdintasunak.
- Genero ikuspegia Zuzendaritza-Batzarretan, Batzar Administratiboetan, etab.
- Gizarte-onarpena.
- Antzemandako beharrak.
- Aldaketarako proposamenak.

Eztabaida talde honetan Batzar Administratibo eta Elkarte ezberdinetako 6 emakumek eta 5 gizonek hartu dute parte.

Aldi berean bi galdetegi sustatu dira, udalerriko 18 Elkarteei eta 16 Batzar Administratiboiei zuzenduak, *online* bidez betetzeko. Hainbat dei oroigarriren bitartez jarraipen espezifiko bat egin ondoren, 10 Batzar Administratiboen eta 7 Elkarten ekarpenak jaso dira:

Batzar Administratiboak	Elkarteak
Apodaka	SOKALARIAK
Letona	MAIRU ABESBATZA
Etxaguen	ZIGOITIKO EKONOMATOA ELKARTEA
Berrikano	OKETA ALAI DANTZA TALDEA
Manurga	ABADELAUETA ELKARTE ETNOGRAFIKOA
Buruaga	DOMINIZUBI MUSIKA ELKARTEA
Akosta/Okoizta	SOCIEDAD DEPORTIVA CULTURAL Y RECREATIVA OKETA
Zaitegi	
Ondategi	
Eribe	

Zigoitiako emakumeen egoerarekin zerikusia duten alor ezberdinetan datu estatistikoak bilaketa bat egin da. Helburua, bere ezaugarri soziokulturalekiko hurbilketa bat izan da, honelako adierazleak bilduz:

ENPLEGUA:	Emakume aktiboen kopurua
	Emakume ez aktiboen kopurua
	Jarduera, okupazio eta langabezia tasak
SOZIALAK:	Adina
	Jatorria (Jaiotza)

Azkenik, *benchmarking* teknika erabiliz, politika alorrean emakumeak duen partaidetza-inguru horren barruan eta kanpoan aurkitu daitezkeen praktika onenak bilatu dira. Horretarako, bertako maila berean alor ezberdinetan emakumeek duten partaidetzako esperientzien bilaketa espezifiko bat egin da partaidetzaren sustapenari buruz, bere idiosinkrasiari esker transferigarriak izan zitezkeen Zigoitiako udalerrira.

3.

Zergatik emakumeen egoera soziopolitikoa?

Zer da emakumeen ahalduntzea? Kontzeptu hau, Nairobiko Nazio Batuetako Erakundearen Nazioarteko Hitzaldian, emakume eta gizonen berdintasun politiken alorrean ematen da ezagutzera. Baina garrantzia urte batzuk geroago hartzen du, 1995. urtean, Erakunde berak Beijingen emakumeei buruz antolatutako IV Hitzaldian, akordioen alorrean botere publikoek emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzera eskainitako politikak eta jarduerak gauzatzeko.

Horrela, Beijingeko Aitorpeneko zenbait artikuluen arabera, kontzeptu honek duen garrantzia nabarmentzen dute. Zehazki, 7.artikuluak dio "erreparorik gabe muga eta oztopo hauen aurka borrokatzea konprometitzen gara eta horrela, mundu guztiko emakumeen aurrerapena eta ahalduntzea sustatu, eta zeregin honek premiazko ekintza bat eskatzen duela adosten dugu, izpiritu ausartarekin, itxaropenarekin, lankidetasun eta elkartasunarekin, orain, eta ikusmena hurrengo mendean jarrita". Lerro honetan, aitorpen beraren 12. artikuluan honakoa azpimarratzen da "emakumeen ahalduntzea eta aurrerapena, pentsamendu-askatasuna, kontzientzien, erlijioaren eta sinesmenen askatasunerako eskubidea barne". Azkenik 13. Artikuluak, zera esaten du "emakumeen ahalduntzea eta bere partaidetza osoa berdintasun baldintzetan eta gizartearen eremu guztietan, erabakiak hartzeko prozesuetarako partaidetza barne, eta botere sarbidea, funtsezkoak dira berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko".

Deklarazio honetatik abiatuz, emakumeen ahalduntzea elementu gakoa bihurtzen da, eta maila eta esparru politiko eta sozial guztietatik sustatu behar da.

CAE-n Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuak sustatu duen VI Planak konpromisu hau jasotzen du modu esplizituan. Ahalduntzea "ezen irteerara gidatzen duen eta pertsonalki eta genero bezala erotzen dituzten gatibutasunen ezabapenera gidatzen duen emakumeen bide eraginkorra eta solidoa da".

“Ahalduntzea eraldaketa prozesuari deitzen diogu; honen bitartez emakume bakoitzak, pixkanaka-pixkanaka eta batzuetan urrats handiak emanez, historia, politika eta kulturaren objektu izaten uzten du, hau da, besteentzat izaten uzten du eta bizitza beraren emakume subjektuan bihurtzen da, beretzat izatera pasatzen da, historia, kultura, politika eta bizitza sozialaren protagonistan.”

Egoera honetaz kontziente izanik, Zigoitiako Udaletxeak, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko politikak garatzen dabil hainbat urtez geroztik, eta bere egungo 2015-2018 Berdintasun Planaren ildo beretik, bere emakumeei dagokionez egoera hau aztertzea garrantzitsua duela estimatu du, bere lerro estrategikoan islatuta geratu den bezala:

Ahalduntzea eta Baloreak

- Batzar Administratiboen alorrean erabakitzeke partaidetzaren kontzientzia handiagoa sustatu.
- Emakumeen sustapen ekonomikoa eta enpresa-jardueraren sorrera sustatu.
- Emakumeen elkartze mugimendua babestu.

Erakunde Sozial Erantzunkidea

- Udalerrian emakumeek duten egoera ezagutzeko azterketa bat egin.
- Zaintzaren etika eta erantzunkidetasuna sustatu.

Aurrez aldeko diagnostikoan zehazki antzeman ziren hobetu beharreko eremuak honakoak izan ziren:

- Udalerriko elkartze-ehunaren lehendakaritzatan hainbat bereizketa ematen dira: kirol-alorrekoak gizonen eskuetan egoten dira eta hezkuntza alorrekoak berriz emakumeen eskuetan.
- Batzar Administratiboetako Lehendakaritza gehienak gizonezkoek betetzen dituzte.
- Era berean, Auzokideen Batzarretan gizonezkoen presentzia handiago bat nabaritzen da, batez ere erabakitze garaian.
- Emakumeek udalerrriaren bizitzarako egiten duten ekarpena ikusgai egitea.
- Parte hartze eta ebaluazioari buruzko datuak bildu, sexuaren arabera banatuta.
- Bizitza sozialean eta udal-bizitzan emakumeen lidergoa indartzera norabidetuko dituzten ekintzak gauzatu.
- Gizonen partaidetza jarduera ezberdinetan sustatu.
- Emakumeak udal-bizitzaren, bere dinamizazioaren eta bere eraldaketaren subjektu aktiboa izatea lortu behar diren gaian sakondu.

4.

Zer gertatzen da Zigoitian?

Egoera soziala

Zigoitiako udalerrria gaur egun 1769 pertsona ditu erregistratuak, hauetako 808 emakumezkoak dira eta 961 gizonezkoak dira, 16 Batzar Administratiboetan banatuta:

	Emakumeak	Gizonak
Acosta/Okoitza	34	36
Apodaka	70	80
Berrikano	64	69
Buruaga	25	19
Eribe	29	33
Etxabarri Ibiña	157	177
Etxaguen	39	41
Gopegi	126	137
Larrinoa	11	13
Letona	20	20
Manurga	35	48
Mendarozketa	17	33
Murua	68	77
Olano	5	15
Ondategi	74	98
Zaitegi	15	29
Zestafe	13	26
Zigoitian sakabanatutakoak	6	10
GUZTIRA	808	961

Iturria: Zigoitiako Udaletxea 2017.

EEl-k Etengabeko Erregistroaren Estatistikaren bitartez eskainitako datuen arabera, 2016.urteko urtarrilaren 1ean 38 atzerritar zeuden erregistratuta, haien artean %50 emakume eta gizonezkoen artean erdibana banatzen zirelarik. Emakume atzerritarren jatorria batez ere Dominikar Errepublika eta Txinatarra da eta gizon atzerritarren artean Marokoarrak.

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoa
Biztanleria osoa	1.727	937	790
Atzerritarrak Guztira	38	19	19
Alemania	3	2	1
Frantzia	1	1	0
Italia	1	1	0
Portugal	5	3	2
Erresuma Batua	1	0	1
Errumania	1	0	1
Errusia	1	0	1
Maroko	5	4	1
Argentina	3	2	1
Brasil	1	0	1
Kuba	1	0	1
Ekuatore	3	1	2
Peru	1	0	1
Dominikar Errepublika	6	3	3
Txina	5	2	3

Iturria: Biztanleri Aktiboaren Inkesta. INE 2017

Enplegu egoera

Enplegu egoerari dagokionez, Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuak eskainitako datuen arabera, 2017.urteko irailaren 1 arte enplegu eskatzaileak guztira 40 gizon eta 67 emakume izan ziren, 13 gizon eta 30 emakume langabezia egoeran egonik. Adinen arabera, egia bada ere langabezian dauden gizonak adin-tarte guztietan daudela, langabezian dauden emakumeak bi adin-tartetan agertzen dira; 30 eta 44 tarte eta 59 urtetik gorako tarte.

	Eskatzaileak guztira			Eskatzaileak langabezia egoeran		
	gizon	emakume	guztira	gizon	emakume	guztira
<20	0	1	1	0	0	0
20 - 24	2	5	7	1	2	3
25 - 29	5	6	11	1	1	2
30 - 34	4	9	13	1	4	5
35 - 39	6	9	15	1	5	6
40 - 44	4	10	14	1	6	7
45 - 49	5	6	11	2	2	4
50 - 54	5	3	8	0	0	0
55 - 59	4	6	10	2	3	5
>59	5	12	17	4	7	11
GUZTIRA	40	67	107	13	30	43

Iturria: Lanbide 2017

Zerbitzu-sektorea da gehien eskatzen dena enplegua bilatzerakoan, kasu honetan emakumezkoen proportzioa nabarmenduz. Lanpostuei dagokionez, gizonzkoen aldetik, gehien eskatzen diren lanpostuak Industriako lanpostu Kualifikatuak direla antzematen da, eta emakumezkoen aldetik berriz, Zerbitzu sektoreko lanpostu Kualifikatuak eskatzen dira.

Sektorea:	Eskatzaile kopurua Guztira			Eskatzaile Kopurua langabezia		
	gizona	emakume	guztira	gizona	emakume	guztira
Lehen sektorea	0	0	0	0	0	0
Eraikuntza	7	3	10	2	2	4
Industria	5	4	9	3	4	7
Zerbitzuak	27	55	82	7	20	27
Aurreko lanposturik gabe	1	5	6	1	4	5
Eskatutako lanak	gizona	emakume	guztira	gizona	emakume	guztira
Zuzendariak	3	0	3	1	0	1
Teknikoak eta Zientifikoak	14	18	32	0	6	6
Laguntza Teknikariak	10	20	30	1	9	10
L. Administratiboak	1	17	18	0	9	9
Beste Zerbitzu Kualifikatuak	10	37	47	4	17	21
Nekazaritza eta Arrantza	5	6	11	1	5	6
Industrian gaituak	15	2	17	7	0	7
Makineria operadorea	10	4	14	6	1	7
Ez kualifikatuak	18	30	48	6	14	20
Indar Armatuak	0	0	0	0	0	0

Iturria: Lanbide 2017


Egoera politikoa

Partaidetza soziopolitikoak eta bere eboluzioa behatuz, lehendabizi, udal-hauteskundeetan emakumeen presentziaren eboluzioa aztertuko da, ondoren, bigarren une batean egoera Batzar Administratiboetan aztertuko.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bildutako datuen arabera, udal-hauteskunde urtearen arabera hautatutako pertsonen dagokionez, 1995. urtetik aurrera emakumeek udalerriko alor politikoan parte hartzen hasten direla antzematen da, eta, 2003. urtez geroztik emakumeen proportzionaltasuna gizonzkoena antzekoa izan da.

Nabarmentzekoa da azken hauteskundeetan, aukeratutako emakumezkoen kopurua gizonezkoena gainditu duela.


Grafikoa: Udal hauteskundeen emaitzak sexuaren arabera



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila

Batzar Administratiboetara buruz aipamena egiten duten datuei dagokionez, emakume eta gizonen arteko proportzionaltasuna mantendu egin da, emakumezkoak %31 eta gizonezkoak % 69koa izanik 2009. urte arte. Ondoren gizonezkoen proportzioa gorantz joan da eta 2013.urteko hauteskundeetan gizonezkoak %81era iritsi ziren.


Grafikoa: Batzar Administratiboetako Lehendakariak sexuaren arabera



Iturria: Zigoitiako Udaletxea

Gehigarri modura esan, batzordekideetan eboluzioa antzekoa izan dela. 2009. urte arte emakume eta gizonen proportzioa emakumeekiko %25ean egon den bitartean, 2013. urtean portzentaje hau partaidetzaren % 12,5 arte erori da.

Grafikoa: Batzar Administratiboetako Batzordekideak sexuen arabera



Iturria: Zigoitiako Udaletxea

Analisia urtetik-urtera eginda, 2002. urtean Eribe, Mendarozketa, Murua, Olan eta Zestafen emakume Lehendakariak aukeratu ziren.

	LEHENDAKARITZA		BATZORDEKIDETZA		
	2002-2006	Emakume	Gizonak	Emakumea	Gizonak
ACOSTA			1	1	1
APODAKA			1		2
BERRIKANO			1		2
BURUAGA			1		2
ERIBE	1			1	1
ETXABARRI IBIÑA			1		2
ETXAGUEN			1	1	1
GOPEGI			1	1	1
LETONA			1		2
MANURGA			1		2
MENDAROKETA	1			1	1
MURUA	1			2	
OLANO	1				2
ONDATEGI			1		2
ZAITEGI			1	1	
ZESTAFE	1				2
GUZTIRA		5	11	8	24

Iturria: Zigoitiako Udaletxea

2006. urtean Eribe, Mendarozketa eta Olanoko Emakume Lehendakariak mantentzen dira, eta emakumeak aukeratzen dira Akosta eta Gopegin.

2006-2009	LEHENDAKARITZA		BATZORDEKIDETZA	
	Emakume	Gizonak	Emakumea	Gizonak
ACOSTA	1		1	1
APODAKA		1	1	1
BERRIKANO		1	1	1
BURUAGA		1	1	1
ERIBE	1		2	
ETXABARRI IBIÑA		1		2
ETXAGUEN		1		2
GOPEGI	1			2
LETONA		1		2
MANURGA		1		2
MENDAROKETA	1		1	1
MURUA		1	1	1
OLANO	1			2
ONDATEGI		1		2
ZAITEGI		1	1	1
ZESTAFE		1	1	1
GUZTIRA	5	11	10	22

Iturria: Zigoitiako Udaletxea

2009. urtean Mendarozketa eta Olanok apustua egiten jarraitzen dute Lehendakaritzan emakumeak egoteko, hala ere aukeratutako emakume kopuruaren jaitziera bat ematen da, Apodaka eta Etxagureneko Emakume Lehendakariak soilik gehituz.

2009-2013	LEHENDAKARITZA		BATZORDEKIDETZA	
	Emakume	Gizonak	Emakumea	Gizonak
ACOSTA		1	1	1
APODAKA	1			2
BERRIKANO		1	1	1
BURUAGA		1		2
ERIBE		1	1	1
ETXABARRI IBIÑA		1		2
ETXAGUEN	1			2
GOPEGI		1		2
LETONA		1		2
MANURGA		1		2
MENDAROKETA	1		1	1
MURUA		1	2	
OLANO	1			2
ONDATEGI		1		2
ZAITEGI		1	1	1
ZESTAFE		1	1	1
GUZTIRA	4	12	8	24

Iturria: Zigoitiako Udaletxea

Azkenik, 2013. urteko azken hauteskundeetan, Emakume Lehendakariak berriz ere 3tara jaisten dira, hautatutakoak Apodaka, Mendarozketa eta Etxaguenen izanik.

Azken urteetako eboluzioari erreparaturaz, nabarmentzekoa da Etxabarri-Ibiña, Letona eta Ondategiko udaletxeetako Batzarretan ez dela emakumerik egon postua betetzen.

2013-2017	LEHENDAKARITZA		BATZORDEKIDETZA	
	Emakume	Gizonak	Emakumea	Gizonak
ACOSTA		1		2
APODAKA	1			2
BERRIKANO		1	1	1
BURUAGA		1	1	1
ERIBE		1		2
ETXABARRI IBIÑA		1		2
ETXAGUEN	1		1	1
GOPEGI		1		2
LETONA		1		2
MANURGA		1	1	1
MENDAROKETA	1			2
MURUA		1		2
OLANO		1		2
ONDATEGI		1		2
ZAITEGI		1		2
ZESTAFE		1		2
GUZTIRA	3	13	4	28

Iturria: Zigoitiako Udaletxea

Batzar Administrazioen funtzionamenduan kontuan hartu behar diren beste faktore batzuk.

Atal honetan, beste aldagarrien emaitzak adieraziko dira; hauek Batzar Administrazioen barne-funtzionamendua aztertzeko garaietan interesekoak kontsideratu dira eta emakumeen partaidetza zehaztu zezaketen kasu honetan:

- 8 Batzar Administrazioek bileren ohiko ordutegia arratsaldeko 19:00ordutik aurrera dela aipatzen dute. Gainerakoek bilerak goizeko 11:00tan egiten direla adierazten dute. Honi ere, Elkartetako bileren ordutegiak arratsaldeko 17:30 tik 20:30tako denbora-tartean ematen direla gehitu behar zaio.
- Elkarteei dagokionez, galdetegiari erantzun dioten 7 elkarteetatik, 2 elkarteek adierazten dute Lehendakaritza emakume batek betetzen duela. Hala ere, Lehendakariordetzak, Diruzaintzak eta idazkariak emakumeek betetzen dituzte batez ere, lehendakariordetzak nabarmenduz.

Item batzuei buruzko iritziei dagokionez, Batzar Administratiboetatik jasotako erantzunak hurrengoak dira:

“Emakumeek herriko jardueretan gehiago hartzen dute parte gizonak baino”	%10
“Gizonek egiten dituzten lanak emakumeek egiten dituzten lanetatik ezberdinak dira”	%30
“Bizikidetasun egoera eta enplegu egoerak, Batzarrak sustatutako edozein jardueretan parte hartzeko garaian eragina dute”.	%50
“Emakumeek dituzten familiako erantzukizunen ondorioz muga gehiago dituzte parte hartzeko gizonak dituztenak baino.”	%20
“Bileren ordutegiak emakumeen partaidetza mailan eragiten dute.”	%0
"Emakumeek egiten dituzten lanak zaintza lanekin eta mantentze lanekin erlazionatuta daude"	%10
"Gizonen lana zerikusia dute, indar fisikoa erabakigarria den lanekin".	%30

Adostasun handiena izan duen aukera, uste osoz, Batzarrak sustatzen dituen edozein jardueretan parte hartzeko garaian bizikidetasun egoera eta enplegu egoerak eragina izaten dutela izan da. Inolaz ere, ez dute uste bileren ordutegiak emakumeen partaidetza mailan eragina dutenik.

Bere aldetik, Elkarteek ere erantzun dute; elkar bizikidetasun egoera eta enplegu egoerak Elkarteak sustatutako edozein jardueretan parte hartzeko garaian eragina dutela, gainera emakumeek gizonak baino gehiago hartzen dute parte herriko jardueretan:

“Emakumeak gizonak baino parte gehiago hartzen dute herriko jardueretan”	%57
“Gizonek egiten dituzten lanak eta emakumeek egiten dituzten lanak ezberdinak dira”	%14,3
“Bizikidetasun egoera eta enplegu egoerek, Batzarrak sustatutako edozein jardueretan parte hartzeko garaian eragina dute”.	%71,4
“Emakumeek dituzten familiako erantzukizunen ondorioz muga gehiago dute partaidetzan gizonak baino.”	%43
“Bileren ordutegiak emakumeen partaidetza mailan eragina dute ”	%0

"Emakumeek gauzatzen duten lana zaintza eta mantentze lanekin erlazionaturik dago"	%0
"Gizonen lana zerikusia dute, indar fisikoa erabakigarria den lanekin".	%0

Zergatik ematen da hautaketa honen beherapen hau?

Lehen erakutsi diren datuak oinarritzat balio izan dute, *Focus Group* teknika erabiliz, egoera honi buruz herritarrei galdetzeko. Zentzu honetan, saioan hurrengo ondorioak atera ziren:

- Lehendakaritzen sexuak ez du zehazten, batzordekidetasunak sexu batekin hala bestearekin bete behar diren hala ez.
- Batzar Administratiboetako bileretan partaidetza normala egotea pertsona horiek aukeratzea motibatzen du.
- Normalean gizonak "familiako burua" izan dira bilera hauetara joan direnak. Hala ere, familia berrien etorrerarekin, kolektibo honetako emakumeek eta gizonak hartzen dute parte.
- Bilerak normalean aste buruetan egiten, dira igandeak barne, meza amaitzen denean.
- Ez dago genero norabide bat bakarrik Batzar Administratiboetako partaidetzan, baita adinari dagokionez ere.
- Sozialki Batzar Administratibo bateko Lehendakariaren lanpostua aintzatetsi gabe dago, zama bat bezala ikusten da.
- Batzarretan parte hartzeak bere onuragarriak ditu ere, batzarrean hartzen diren erabakiak berehala gauzatzen direla nabaritzen delako (berinape, kulunken, sakanguneen instalazioak, etab.).
- Batzar Administratiboaren eguneroko lana burokrazia ugari eta prozedura administratiboaren ezagutza inplikatzeko du.

- Gizarteak Batzar Administratiboak mendien kudeaketarekin lotuta daudela hautematen du, herritarren partaidetzarako espazio batekin lotuta egon beharrean.
- Orokorrean emakume eta gizonen partaidetza eskasa hautematen da udalerriak antolatutako jardueretan, ez bakarrik biltzarretako jardueretan, baita elkartetako jardueretan ere.
- Tradizioz bideen arabera lana egin arren, lan hori kanpotik kontratatzea aukeratzen ari da, beraz ez da betebehar bezala antzeman beharrik.
- Familiako erantzukizunek emakumeen partaidetza eskasa zehazten dutela uste da eremu pribatutik kanpo (elkarteetan, Batzar Administratiboetan, etab.).
- Emakume eta gizonezkoen partaidetza handienak udalerrientzat hartzen diren erabakiak aberastuko ditu.
- Batzuen eta besteen artean prestatutako lanak, lorpenak eta funtzioak alderatzeko joerarik ez dago.
- Udalerriak azken urteetan esperimentatu duen herriko garapenak, biltzarretan proportzionalki emakume gehiago egotea sustatu du Araban dauden gainerako Batzar Administratiboetan baino. Izan ere, partaidetza komunitarioaren aldeko jarrera duen jende gaztea egoteak (aitzinean modu ezberdinean egiten zen), Batzar Administratiboetan garatzen diren bileretan emakumeek ere parte hartzea motibatzen du, kasu honetan, Lehendakaria edo Batzordekidea izaten laguntzen du.

5.

Zer egin dezakegu? Ibilbide orria

Zigoitiako Udaletxeko Berdintasun Sailaren aldetik helburu bat lortu nahi zen proiektu honekin; Batzar Administratiboetan emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia baldintzatzen dituzten motibazio eta faktoreei buruz gauzak argi uztea. Jarraian Udaletxeak hausnartu behar dituen zenbait proposamen aurkezten dira; bere tokiko lehiakortasunari zuzenean enfokaturia eta baita Batzar Administratiboei zuzendua ere:

UDALETXETIK

- Emakumeen ahalduntzea sustatu: honako ikerketan zehar azaldu denez, nahiz eta emakumeak udalerriko eguneroko bizitzan egon, bere presentzia ez da boteredun lanpostuetan islatzen, eta ondorioz ikusgaitasun handiagoarekin,... Ekintza ildoak sustatu beharko lirateke emakume hauekin, Batzar Administratiboetan eta Zuzendaritza Batzarretan sartzeko galarazten duten oztopo eta eragozpen haiek identifikatzeko eta ezabatzeko asmoz. (Lidergo teknikan prestakuntza espezifiko emakumeentzat, jendaurrean hitz egiteko teknikak...)
- Mezu argien eta adibide esplizituen bitartez, Batzar Administratiboetan parte hartzeak dituen onuragarriak herritarren artean zabaltzea.
- Lan egitarau bat sustatu Gaztegunearen laguntzarekin, Zigoitiako gazteak Batzar Administratiboetako errealitatera hurbiltzeko. Zentzu honetan beharrezkoa izango litzateke emakumeekin espezifiko lan egitea, udal-gaietan bere partaidetza sustatzeko.
- Udal-aldizkariaren bitartez berdintasunezko ereduak zabaltzen jarraitu, erabakiak hartu behar diren alorretan emakumeak erakusgai egon ditzaten. Emakume hauek ikusgai bihurtzean datza, eta eredutzat balio izatea, eta beste emakume batzuentzat bultzada bat izatea.

- Batzar Administrazioei aholkuak eta laguntza eskaini, herritarren partaidetzarako behar diren eredu berrien aurrean.
- Herritarren artean biltzarren funtzionamendua eta helburuak zabaldu (ez mendiak bakarrik, baita aisialdirako espazioak, kulunkak, etab.) hizkuntza hurbila erabiliz(kartelak, mezu zehatzak, etab.).

BATZAR ADMINISTRATIBOETATIK

- Auzokideen arteko komunikazioa sustatu informazioa erraz iristen laguntzeko.
- Bileren helburuak zehaztasunez zabaldu, hizkuntza hurbila erabiliz, praktikotasunetik abiatuz.
- Herritarren partaidetza tekniken bitartez, biltzarraren barnean egin behar diren jarduerengatik erabakitzeko, pertsonak sustatu.
- Herritarrei jakinarazi edozein bileratan parte hartu daitekeela, emakumeak esplizituki bilera hauen barnean sentitu behar direla eta parte hartzera deituak daudela, adibidez, hizkuntza sexista erabiltzen saihestuz, eta komunikaziorako sarbidea bermatzeko eraginik gabeko komunikabideak erabiliz.

6.

Zigoitiako errealitateari aplikagarriak diren Jardute Onak

Praktika On bat emaitza positiboekin inplementatu den esperientzia edo eskuhartze bat da, testuinguru zehatz batean eraginkorra eta baliagarria da, pertsonen eguneroko lanean topatzen diren arazoan edo/eta zailtasunen erregulazioan, hobekuntzan eta aurre egiten laguntzen du, esperientzia hau beste erakunde batzuentzat eredu bezala balio dezake.

Praktika on batek hainbat ezaugarri betetzen ditu, honakoak bezala:

- Emaitza baliotsu bat aurkezten du erabiltzailearentzat.
- Erraza eta sinplea da.
- Berritu edo hobetu behar den egoera bati erantzuteko sortzen da.
- Inplementatzen den testuingururako egokia eta aproposa da.
- Denboran zehar jasagarria da (mantendu daiteke eta efektu iraunkorrak eragin ditzake).
- Berritzailea da (berrikuntza ez duela bakarrik ekintza berri bat inplikatzeko baizik eta praktika tradizionalak egiteko edo berrantolatzekeko modu ezberdin bat izan daitekeela ulertuz).

1 Fitxa: Kanpainen eta informazioaren hedapena Whatsapparen bitartez	
Kokapena	Zalla (Bizkaia)
Helburua	Udalerritari buruzko informazioa zabaltzea eta jaso herritar guztien artean.
Deskribapena:	Hasieran ekintzaren helburua jardura kulturalak, kirol-jarduerak eta hitzaldiak herritarren artean zabaltzea zen. Ekimenaren arrakasta ikusirik, tresna hau Udaletxearen eta Herritarraren arteko komunikabide bezala ezarri da kontsultak, zalantzak edo gertakariak Udaletxera iristen laguntzeko.

Zergatik da jardute ona Zigoitiarentzat?

Ikerketan zehar, udal-gaiei eta Batzar Administratiboei buruzko informazioa zabaltzeko eta hobetzeko beharra dagoela jakinarazi da. Horregatik ulertzen da, sare sozialek eskaintzen dizkiguten mekanismoak erabiliz, komunikazio hau hobetu genezakeela eta herritar guztiak informatuta mantenduko liratekeela era berean.

2. Fitxa: Aurrekontu parte hartzaileak

Kokapena	Barakaldo (Bizkaia)
Helburua	Auzokideen beharrak eta lehentasunak aurrekontuetan txertatzea.
Deskribapena:	<p>Lehendabizi, Barakaldoko herritarrek parte hartzeko epe bat ireki zen bere proposamenak aurkezteko. Epea amaitu denean, udal teknikariek onartuak eta ez-onartuak izan diren proposamenei buruzko datu estatistikoak erakusten dituzte.</p> <p>Onartuak izan diren proposamenek nolana ere eta interes orokorreko edozein egoera dela gailentzeko baldintza betetzen dute, herritar guztien bizitza kalitatean hobekuntza lortzeko eta Udaletxeak eskainitako zerbitzuen hobekuntzek udalerriko herritar guztientzat edo udalerriko kolektibo zabal eta esanguratsu batentzat izateko.</p>

Zergatik da Jardute Ona Zigoitiarentzat?

Batzar Administratiboen funtzionamendua eta biltzen dituen aukerak herritarrengan iristeko modu praktikoa da. Zentzu honetan, prozesu parte-hartzaileak erreferentzia modura hartuz, udal-mailan hartzen diren erabakietan pertsona gehiago parte hartzea sustatuko du.

3. Fitxa: Gazteen Osoko Bilkura

Kokapena	Irun (Gipuzkoa)
Helburua	Jende gaztea sustatu udal- funtzionamenduan
Deskribapena:	Gazteen Osoko Bilkura Proiektua, Iruneko jende gaztea prozesu demokratikoetan parte hartzeko jaio zen, hala nola Bakearekin eta Giza-Eskubideekin erlazionatutakoak. Gazteen Osoko Bilkuraren prozesua ikasleriarekin prestakuntza saioak egitean eta dekalogo bat prestatzean datza eta gai zehatz hauek lantzeko konpromisua hartzen dute. Dekalogoaren edukia landu ondoren, Emakumezko Alkate bat eta ordezkariak aukeratzen dira eta hauek, modu sinboliko batean, Batzar saio bat egingo dute eskuratutako konpromisua indartzeko.

Zergatik da Jardute Ona Zigoitiarentzat?

Batzar Administratiboetan herritarren partaidetza eskasa dela ikusirik, praktika hau proiektu zehatz batera eraman dezakegu Gaztegunearekin ildo berean. Zentzu honetan gazte-jendearekin Batzar Administratiboen eta Udaletxeko funtzionamendua lantzeaz gain, erabakiak hartzerakoan gazteak inplikatuko lirateke. Paraleloan neskekin emakumezkoen berdintasun eta ahalduntze alderdiak landuko lirateke, eta mutilekin gizonezko eredu tradizionalaren eztabaidaketa egingo litzateke.